

BEKADUN BAKOITZAK MILIOI BAT PEZETA ESKURATUKO DU EGITASMOA OSATZEKO (40.000 LIBERA INGURU)

Epaltzak eta Sarrionandiak jaso dituzte Joseba Jaka II. Bekak nobela arloan

■ Harkaitz Cano eta Juanjo Olasagarre, poesian, eta Piarres Xarriton eta Pedro Alberdi, saiakeran, beste bekadunen artean

■ Pello Esnalek jaso du gazte literaturako beka bakarra, bestea hutsik uztea erabaki baitu epaimahaiak

■ Anjel Lertxundik, Laura Mintegik, Joserra Garziak, Joxe Austin Arrietak eta Joxe Azurmendik osatu dute epaimahaia

Jon Eskisabel / Donostia

JOSEBA JAKA kultura sustatzaile eta euskaltzale zenaren izena duten II. Literatur Beken irabazleen izenak jakinarazi zituen atzo Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak. Josebaren anaia eta Fundazio-ko idazkari Jon Jakak gogoratu zuenez, euskal idazleei diruz laguntzeko xedez sortu ziren beka hauek; «haien lanaren truke gure merkatu txikiak eman ezin diena nolabait konpentsatzeko».

Anjel Lertxundik, Joserra Garziak, Laura Mintegik, Joxe Austin Arrietak eta Joxe Azurmendik osatu dute epaimahaia, eta eurek jakinarazi zituzten bekadunen izenak. Arrietari egokitu zitzaion nobela arloan aurkeztutako 15 egitasmoetatik saritutako biak aurkeztea: Aingeru Epaltzaren *Rock & Roll* edo *Hatz nagia* (izenburua zehazteke dago) eta Joseba Sarrionandiarren *Atako banda*.

Epaltza bera han zegoen, kazetari eta argitaldarien artean, eta proiektua azaldu zuen. «Aurretik eginda nituen blues eta folk kutsuko liburuak, eta orain rock & roll liburu bat idatzi nahi nuke. Rock & rollaren ezaugarri guztiak izango ditu: asfalto, gaua, autoak ziztu bizian, sexua, drogak... Tarte batzuk poperoagoak izango ditu eta beste batzuk heavyagoak», adierazi zuen idazle nafarrak. Belaunaldiko nobelaren eta genero beltzaren arteko mugan egongo da liburua. Beste hizkuntzetan normalizatuta dagoen genero horretan «txukun sakondu eta pertsonaia *urbanitak* dotore eraikitze gaitasuna» nabarmendu du epaimahaiak.

Sarrionandiarren liburuari dagokionez «haren anaia ekitaldian zegoen», azpimarratzekoa da haren lehen nobela izango dela *Atako banda*. Egitasmoaren aurkezpenean Sarrionandiak esan zuenez, duela zazpi urte idatzi zuen liburuaren lehen bertsioa. 70eko hamarkadan zegoen



Joxe Azurmendi, Jon Jaka, Joserra Garzia, Marijose Irizar, Joxe Austin Arrieta eta Laura Mintegi, bekadunak iragarri aurretik.

EDURNE KOCH

girotuta, eta egilearentzat nolabait memoria errekupeazio bat izan zen. Frantsesezko irakaslearekin maiteminduko den mutiko baten istorioa kontatzen du. Bat-batean, amodioa, nortasuna, sexua eta politika deskubrituko ditu gazteak. «Lirikoegia eta primarioegia» iruditzen zitzaionez, berriz idatzi du Sarrionandiak, oroitzailearen plano narratiboa tartekatuz.

Poesian aurkeztutako sei proiektuen artean Harkaitz Cano (*Jainkoa sute-eskilaran behera*) eta Juanjo Olasagarrenen (*Puskak bizi*) hobetsi ditu epaimahaiak. Canoren kasuan, giro poetikoa sortzeko gaitasuna, erritmo aldaketa eta erabilitako erreferentzia kulturalak azpimarratu ditu epaimahaiak. «Poema narratiboak, indartsuak eta iradokitzaileak dira», esan zuen Laura Mintegik.

Olasagarrenen *Puskak bizi* egitasmoan «ez nahastu egile beraren *Bizi* puskak lanarekin», «egunerokotasunean dituen une poetiko intentsoak» baloratu ditu epaimahaiak. «Pusketak dira, baina osotasunaren indarrak. Poe-

puntuz puntu

Zazpi egitasmo

■ Hauexek dira Joseba Jaka II. Literatur Beken epaimahaiak hautatutako egitasmoen nondik norakoak.

Aingeru Epaltza (*Rock & roll*) • Rock & rollean girotutako liburua, genero beltza eta belaunaldiko nobelaren artekoa.

Joseba Sarrionandia (*Atako banda*) • 70eko hamarkadan frantsesezko Iparraldeko irakaslearekin maiteminduko den mutiko baten istorioa. Sarrionandiarren lehen nobela.

Harkaitz Cano (*Jainkoa sute-eskilaran behera*) • Hiri eta bidaia baten gisara osaturiko poemario narratiboa da, musika, pintura eta poesiarren erreferentzia ugariarekin.

Juanjo Olasagarre (*Puskak bizi*) • Egunerokoan murgildutako poesia puskak, baina osotasunezko indarrak.

Pello Esnal (*Azerien zuloak*) • Erreformatorioan dagoen mutiko baten istorioa, «klabe alegorikoan» idatzita.

Piarres Xarriton (*Giza eskubideak eta herri eskubideak*) • Aspaldian sortu eta egun bizirik dirauen auzia aztergai.

Pedro Alberdi (*Sator zuloetatik lur azalera bezala*) • 60-70eko hamarkadetakako euskalgintzaren azterketa.

sia urratua baina orekatua da. Estiloa definitu beharko banu, puntalismoa dela esango nuke, atzera egin behar da, urrundu, osotasuna ikusteko», esan zuen Mintegik.

Gazte literaturan beka bakarra eman du epaimahaiak, Pello Esnalen *Azerien zuloak*

lanari hain zuzen. Aurkeztutako beste bost lanen artean saritzeko modukorik ez du topatu epaimahaiak, eta, hortaz, hutsik utzi du bigarren beka. «Gogorra izan da, baina txarrak ez ziren arren, ez genuen garbi euskarari ezer ekartzen ziotenik», azaldu zuen Joserra Garziak. Es-

nalena lana erreformatorio batean sartzen den gazte baten istorio arina eta xumea da, baina «irakurketa maila bat baino gehiago du», esan zuen Garziak.

Azkenik, saiakera arloko bekak Piarres Xarriton (*Giza eskubideak eta herri eskubideak*) eta Pedro Alberdiren zat (*Sator zuloetatik lur azalera bezala*) izan dira. Aspaldian sortu eta egun bizirik dirauen auzi bat aztertu nahi du Xarritonek. «Esperientzia badut. Borroka horretan nabiltia sortzetik, eta 77 urte igaro dira jada». «Azalpen aski gogoetatsua eta dokumentatua, eta idazkera erakargarria» nabarmendu zuen Joxe Azurmendik.

Alberdik, berriz, 60-70eko hamarkadetakako euskalgintza giroan «bisturia» sartu nahi duela esan zuen. «Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* eta Jon Juaristiren *El bucle melancólico* liburuak dira ongien azaltzen dutenak egin nahi dudana», gaineratu zuen. Alberdiren narratiba pikareskoa erabiltzeko saioa goraiatu zuen Azurmendik.